

``Dejar X poder Ser X''

Armando Andrade Tudela

2020ko urt 24 - mar 7

CarrerasMugica

Laurie Andersonen kanta bati izenburua ematen dion formula ia-matematikoa da $X = X$, eta haren aldaera bat da Dejar X poder Ser X (X Izan ahal izaten Utzi X). Eskema simetriko horren atzean ezkututzen den ideia, gauzei eskubide formal eta materiala aitortzearena da. Hau da, X-rekiko konfrontazioaren eta emaitzaren arteko distantzia laburtzekoa, edo are hobe, guztiz ixtekoa.

Formula itzultzea eta ekuazioaren sinpletasunari poder ser (ahal izan) gehitzea, haren zentzuan berean anbiguotasun izpi bat sartzearen modukoa izan zen. Bat-batean, neurri batean fedea eta borondatea ere behar ditu simetria horrek aurrera ateratzeko. Materialak material eta formak forma badira ere, objektuek aldi berean funtzio bat baino gehiago bete dezaketenaren aukera zabaltzen du Dejar X poder Ser X-k. Eskultura eta doktrinamendurako tresna aldi berean. Edo espazio piktoriko bihurtutako panelak. Hau da, alde bati eta gero besteari buruz hitz egitea.

Hiru obra multzo daude DXPSX-n. Erdigunean, aretoko bi hormari helduta dagoen eskultura bat. Eje Bilbao x Seis Cuerpos izenburua duen eskultura honek espazioa bitan zatitzen duen ardatz papera betetzen du, eta bere inguruan antolatzen dira bai gainontzeko obrak, eta baita geure mugimendua ere. Fisikoki eragiten digu bolumenak, eta haren dimentsio material eta historikoak. Ez da txantxa, Eje Bilbao x Seis Cuerpos-ek sei gorputz lotu ahal izango lituzke, X besterik gabe X izan dadin utziko bagenu. Oihalezko 5 lan berriko multzo bat ere badago. Oihal hauek egiteko prozedura filmen edizioaren oso antzekoa da: metrajearen ekoizpena, mozketak, edizioa eta sekuentzien muntaia. Material-diagrama modura uler daitezkeen obra hauek, lixibak erasandako eremu batzuen eta bere horretan utzitako beste batzuen artean eraikitzen dira; argiak zeluloide gainean finkatzeko behar duen prozesuaren antzekoa, alegia.

Azkenik, orain arte aipatutako guzti horren interpretaziorako aukerak zabaltzen dituen 8 collagezko sail bat dugu. Erakusketa bat beste erakusketa baten barruan 8 eszenatan, edo alderantziz.

Armando Andrade Tudelak (Lima, Peru, 1975) honakoetan egin zituen bere ikasketak: Limako Pontificia Universidad Católica, Londresko Royal College of Art, eta Maastrichteko Jan Van Eyck Akademie. 2008-2009 bitartean Berliner Künstlerprogramm-DAAD bekaren onuradun izan zen, Berlinen, Alemanian. Bere obra bilduma garrantzitsuetan dago, hala nola MOMA (New York), Centre Georges Pompidou (Paris), MACBA (Bartzelona), Reina Sofía Museoa (Madril), Tate Gallery (Londres) edo Guggenheim Museum (New York). Bere azken proiektuen artean azpimarratzekoak dira Museo Tamayoko Ayrton (Mexiko Hiria), CRAC Alsace-ko On working and then not working (Altkirch, Frantzia) eta CA2M-ko Autoeclipse (Móstoles, Madril). Galerian egiten duen bigarren erakusketa da hau, 2017ko El hueso tallado-ren ondoren.



Ikuspegi orokorra



Ikuspegi orokorra

Diagramas materiales#1, 2020
Lixibaz tratatutako denima, poliesterra. 277 x 91 cm.





Diagramas materiales#2, 2020
Lixibaz tratatutako denima, poliesterra. 277 x 88 cm.

Diagramas materiales#3, 2020
Lixibaz tratatutako denima, poliesterra. 290 x 130 cm.



Ikuspegi orokorra



Diagramas materiales#5, 2020
Lixibaz tratatutako denima, poliester. 212 x 370 cm.



Eje Bilbao x Seis Cuerpos, 2020
Egurra, altzairu galvanizatua. Neurri aldakorrak. (xehetasuna)




Eje Bilbao x Seis Cuerpos, 2020
Egurra, altzairu galvanizatua. Neurri aldakorrak.




Eje Bilbao x Seis Cuerpos, 2020
Egurra, altzairu galvanizatua. Neurri aldakorrak. (xehetasuna)







Diagramas materiales#4, 2020
Lixibaz tratatutako denima, poliester. 154 x 325 cm.











Diagramas materiales#6, 2020
Lixibaz tratatutako denima, poliesterra. 240 x 217 cm.

CarrerasMugica

www.carrerasmugica.com

info@carrerasmugica.com

Calle Heros 2 / E-48009 BILBAO
T. +34 944234725